

# Interkooperazioa enpleguaren euskarri

Baleren BAKAIKOA AZURMENDI

Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuko Zuzendaria  
Ekonomia Aplikatuko Katedraduna  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2014/04/10

Onarpen data: 2014/07/29

**Aurkibidea:** 1. Sarrera. 2. Zer da interkooperazioa edo elkarren arteko lankidetzatza? 3. Jendarte kapitala eta kooperatibismoaren printzipioak eta baloreak. 4. Kooperatiben integrazioa eta elkartzea. 5. Interkooperazioa eta gazteak. 6. Euskal unibertsitari egresatuen aukerak. 7. Ondorioak. 8. Bibliografia.

## **Laburpena:**

Artikulu honetan azaldu nahi da balore eta printzipio kooperatiboak jendarte kapitalaren osagaiak direla eta beroiek barneratzen dituzten enpresak sendotasun eta iraunkortasun ziurragoa dutela beste edozein enpresa baino. Azpimarratzen den printzipioa interkooperazioarena da eta berroren bidez enpresa proiektu bideragarriagoak sortu daitezke, azken finean jendarte kapital ugariagoa baitute. Euskal Herriko Unibertsitateak badauka Enplegu Zerbitzua eta emaitza esanguratsuak erdietsi ditu, nahiz ikasleentzat erakargarriagoak diren lankidetzatza formulak ez dakigun erabiltzen dituzten sortutako enpresa berriek.

## **Hitz gakoak:**

Balore eta Printzipio Kooperatiboak, Interkooperazioa, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Parte-hartzea, Jendarte kapitala.

## **Resumen:**

El objetivo de este artículo es demostrar que los valores y principios cooperativos forman parte de lo que denominamos capital y las empresas que interiorizan dichos valores y principios son más consistentes y sostenibles que cualquier otra empresa. En este trabajo se subraya la importancia de la intercooperación y las que ponen en práctica este principio cooperativo son proyectos empresariales más viables. La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea tiene en funcionamiento un Servicio de Empleo el cual ha obtenido destacados resul-

tados, aunque no se sabe si las empresas constituidas utilizan fórmulas intercooperativas.

**Palabras clave:**

Valeres y Principios Cooperativos, Intercooperación, Economía Social, Empleo, Participación, Capital Social

**Abstract:**

The aim of this paper is to show that the cooperative values and principles are part of what is called social capital. The enterprises internalizing these values and principles are more consistent and sustainable than any other capitalist enterprise. This paper stresses the importance the principle of inter-cooperation and the enterprises implementing this cooperative principle are more viable. The University of the Basque Country (UPV / EHU) has created its own Employment Service which has obtained outstanding results, although it is unclear whether the created companies use intercooperative formula.

**Keywords:**

Values and Principles of Cooperativism, Inter-cooperation, Social Economy, Employment, Participation, Social Capital

**ECOLINT:**

A130, E240

## 1. Sarrera

Manchesterren 1995an Nazioarteko Alianza Kooperatibak (NAK) burutu zuen kongresuan ekonomia globalizatura egokitu zituen bere printzipio kooperatiboak. NAK 1895ean sortu zen nazioarteko erakunde hau eta geroztik ospatu dituen kongresu guztietan printzipio horiek berriro, gehitu edo egokitu egin dira. Bestalde, printzipio horiekin lotuta zenbait balore daude: auto-laguntza, auto-erantzukizuna, demokrazia eta elkartasuna edo solidaritatea. Azpimarratu behar da kooperatiba mugimenduaren funtsean baloreak daudela eta balore horietatik eratorriko dira printzipioak. Haatik, behin eta berriro azpimarratzen da kongresu honen emaitza nagusietakoa bezala, ekarpen garrantzitsu moduan, kooperatibismoaren balore eta printzipioak txertatuta daudela azaltzea, kapital enpresetan ez bezala, horietan posibleak eta akziodunei balioa sortzea baita helburu.

Manchesterreko kongresuak bereak egin zituen 1966ean Vienan onetsi ziren hiru printzipio (CIRIEC-ESPAÑA, 1995). Lehena, borondatezko atxikipena eta ate irekia; bigarrena, bazkideen kudeaketa (kontrola) demokratikoa; eta hirugarrena, kooperatiben arteko lankidetzeta (PAZ CANALEJO, 1995). Azken printzipio hauen arabera, kooperatibek beraien artean lagundu behar dute, modu horretara indartsuago eta sendoago bilakatuko baitira, bai tokian tokiko, bai eskualde, nazio edota nazioarte mailan.

Beraz, NAK berresten du interkooperazioa printzipio gisa eta beronen baitan sartuko dira kooperatiben arteko alianza oro. Halaber, aliantza hauek ohikoak dira, bai bigarren maila edo goragokoak, baita elkarren artean sortuko diren beste edozein elkarte ere. Guztiau meso mailan ulertu behar da; mikro mailan, aldiz, norbanakoen artean eraikitako aliantzak egongo dira, edozein enpresa egitasmo ere aurreikusi beharko lirateke printzipio hauen baitatik.

Bigarren edo maila goragoko kooperatibaz gain, ematen dira kooperatiben arteko beste elkarte edo hitzarmenak. Lotura hauen bidez sare moduan funtzionatuko dute eta horrela kooperatibei errazago egingo zaie merkatu globalizatuetan jardutea. Elkarte hauen artean kooperatiben federazioak eta konfederazioak sartuko dira, baita hobekiago lehiatzeko eta funtzionatzeko eratutako elkarte merkantilak (PAZ CANALEJO, 1995:30).

Halaber, mikro mailara jaisten bagara, norbanakoen arteko lankidetzeta ere kontutan hartu behar da. Langile autonomoa ez litzateke Gizarte Ekonomian (GE) kokatuko, baina beste norbanakoekin elkarlanean aritzeko urratsa ematen badute, orduan, interkooperazioarekin bat letorke. Beraz, gaur egungo enpresen bilakaera aintzat hartuta, bide oparoa irekitzen duela dirudi norbanakoen arteko lankidetzak. Lankidetzeta horrek ahalbidetuko luke GEko enpresa proiektuak sendoagoak izatea eta bide batez lanpostu egonkorragoak sortzea, enpresa merkantilak ez bezala.

Lan hau burutzeko interkooperazioaren printzipio kooperatiboarekin hasi naiz eta printzipio honen inguruan dagoen literatura aztertu dut, batik batik jendarte kapitalarekin bat datorrena. Gazteen langabeziari buruzko datuak erabili ditut, baita Madrileko Universidad Complutensen egin zen inkesta bateko emaitzak ere. Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateko Enplegu Zerbitzutik jasotako datu batzuk ematen ditut jakiteko zer nolako egoeran dauden azken urteetako egresatuak.

Artikulua, bestalde, sarrera eta bost ataletan banatu dut. Hasteko, interkooperazioa zertan den azaltzen dut. Hirugarren atalean, jendarte kapitalari printzipio eta balore kooperatiboek egiten dizkieten ekarpenak aztertzen ditut. Laugarrenean, kooperatibak elkartzeko mota desberdinak ematen ditut. Bosgarren atalean, gazteentzat interkooperazioak dituen abantailak erakusten ditut eta seigarrenean euskal unibertsitariak dituzten enplegu aukerak ematen dira. Lanari amaiera ondorio batzuekin ematen diot.

## 2. Zer da interkooperazioa edo elkarren arteko lankidetzatza?

Interkooperazioak hegi bat baino gehiago dauzka. Hasteko, Rochdaleko pioneroek kontutan izan zuten ezaugarri hau, gerora kooperatibismoaren printzipio bilakatuko zena, eta proposatu zuten kooperatiben arteko integrazio premia. Aurrerago NAKek kooperatiben printzipiotan jaso zuen eta horrela dio 1995ean Manchesterreko kongresuak onetsi zuen testuak (NAGORE, 2008) : «Kooperatiben arteko lankidetzatza. Kooperatibek beren bazkideen interesen zerbitzuan daude eta ahal den egokien indartu behar dute kooperatiben mugimendua. Horretarako, tokian tokiko, nazioko eta nazioarteko egituratze sendoena gauzatu behar dute». Eta aitortzen gehigarrian horrela ihardesten du: «printzipio bezala inoiz garrantzia izan badu, 1990eko urteetan izan du». Jakina, hamarkada horretan ekonomiaren nazioartekotzeak jauzi esanguratsua eman zuen eta hortik kooperatiben arteko lankidetzaren premia.

Lankidetzatza hori gauzatu ahal izateko erakunde publikoek ere bere erantzukizuna daukate (BAKAIKOA eta al, 2012), kooperatiben arteko harremanak sustatze aldera, azken finean, kooperatibismo osoaren interes gisa hartu behar baita beraien arteko elkartasuna edo solidaritatea.

Beste modu batean esanda, interkooperazioak kooperatiben arteko integrazioa aitortu nahi du eta helburu ekonomikoak atzean baldin badaude ere, zein edozein eratako elkarrekin bidez heldu baitaiteke, elkarlaguntza balio gisa ere hor sartuko genuke. Izan ere, elkarlaguntza kooperatibaren baitan ematen den balorea izateaz gain, kooperatiben artean ere bideratu behar da enpresa erraldoien lehiari aurre egiteko, baita zenbait gobernuk kooperatibekiko duten jarrera orekatu ahal izateko.

Laburbilduta, lankidetzatza printzipioa lotuta aurkitzen da norbanakoen arteko harremanetan zeinek solidaritate balioaren gauzatzea baitakar. Bestalde, lankidetzatza hori ekonomian dauden erroka berriei aurre egiteko eratzten baldin bada ere, eredu bat baino gehiagoko formak daude kooperatibaren baitan printzipio eta balore horiek. Eta azkenik, etorkizuneko enpresa motarekin lotuta, interkooperazioak oinarritzko elementu eta osagai izan behar du enpresa kolektiboak sortu ahal izateko.

## 3. Jendarte kapitala eta kooperatibismoaren printzipioak eta baloreak

Gaur egun garrantzi handia dauka jendarte kapitalak enpresa zein herrialde bateko berrikuntzan eta jakina, berrikuntzarik gabe merkatuetan lehiatzea arras zaila egiten da. Izan ere, azterketek erakusten dute enpresa baten kaudimena edo herrialde bateko garapen ekonomikoa eta jendarte-koa berrikuntzarekin hertsiki lotuta daudela. Eta berrikuntza hori prozesu

baten emaitza da eta prozesu horren gain kooperatibismoaren printzipioek eta baloreek eragin nabarmena daukate.

Hasteko, printzipio eta balore horiek jendarte kapitalari ekarpen handia egiten diote, bai enpresaren egiturei dagokienez, baita beste enprese-kiko harreman eta ezagutzari dagokienez. Enpresa osatzen dutenen *stakeholderrek* bereganatzen baldin badituzte printzipio eta baloreak, pertsona gaituagoak, prestatuagoak eta ezagutza sakonagoak izango dituzte oro har enpresa horiek. Horrela, enpresaren berrikuntza errazagoa izango da. Teoria hau herrialde bati ere aplikagarri izango zaio (MARCUELLO eta al, 2008).

Haatik, aitor daiteke printzipio eta baloreek jendarte kapitalaren gain eragin baikorra dutela eta enpresari intangible bezala erantsiko zaiola, enpresaren gaitasuna indartuz eta ezagutza areagotuz, batik bat kooperatibetan, naturalki barneratzen dituztelako (MARCUELLO, C. et al, 2010). Halaber, interkooperazioa abantaila kooperatiboa da erraztasunak ematen dituelako edozein eratako sare edo loturak sustatzeko kooperatiben artean. Interkooperazioak, bestalde, kooperatibei malgutasun handiago eta autonomia aberatsagoa ematen die aldaketei aurre egiteko; azpiegitura komunak erabil ditzakete zeinek ekonomia eskalak sortuko baitizkie, baita konfiantza eta ziurtasuna bizirauteko edozein abagune dela ere. Jendarte kapitalak adierazi nahi du erakunde batek baliabide orokor batzuk erdiesiko dituela gizarte harremanetan oinarrituta, baita antolakuntza gaitasunak ere zeinak barneratuta baitaude sarean bertan.

Gizarte egiturei dagokienez COLEMANek (1988 eta 1990) dio interresgarrienak egitura itxiak direla, non isun eragingarriak existitzen diren eragileen artean jendarte jokaera auzipetzeko. Eragile hauen fidagarritasun eta izen-ona oinarritzkoak dira jendarte kapitalaren osaketan.

Kooperatiben arteko lankidetzeta eta sozializatzeko interesak ahalbidetzen du kooperatibak enpresa kapitalistarekiko abantailak izatea. Beraz, jendarte kapitalak abantaila nabarmenak ematen dizkio edozein erakunderi, tartean, kooperatibei. Abantaila horiek urriagoak dira merkatal eitea duten kasuetan MARCUELLO eta al-en (2008: 70) ustez, jendarte kapitalak erabakiak hartzeko erraztasunak hobetzen ditu, oportunitismoa ahultzen du eta koordinazioa erosotzen du; gainera, transakzio kostuak ere merkatzen ditu. Beraz, kooperatibismoaren printzipioek eta baloreek ekarpen baikorrak egiten dizkiote jendarte kapitalari eta enpresa arruntek bereganatzen baldin badituzte, emaitza ekonomiko hobeagoak izateko aukerak areagotuko zaizkie.

Halaber, enpresa kooperatiboek badituzte beste zenbait abantaila zeinak printzipio kooperatiboetan oinarritzen baitira. Izan ere, kooperatiba enpresa mota bat da pertsonan oinarritzen dena, kapital enpresa ez bezala; hala ere hauek bezala merkatuan lehiatu behar dute eta horretarako bai

motibazio, baita ere koordinazio bereziki kontatzen du zeinen bidez zenbait abantaila izango baitituzte.

Aipatu bezala, abantailaren artean jendarte kapitala legoke zeinen osagarri garrantzitsua kooperatibaren kideen arteko konfiantza baita. Konfiantza hau areagotzen da, printzipioak beta ahala, gardentasuna indartsua baldin bada. Eta gardentasun hori bermatu beharko luke enpresaren jabetzak eta horretan kooperatibako bazkideak berdinak dira eta informazio oro eskuratzeko eskubidea izateaz gain kooperatibako zuzendaritzaren derrigorrezko bete beharra da.

Jabetza egituraren oinarrituta kooperatibaren gobernu desberdina da beste jabetza egitura duten enpresekin alderatuta. Kooperatibetan kide orok erabakitzen dute eta beraien helburu nagusia ez da izango mozkinak maximizatzea, baizik kide bakoitzaren sarrerak ahal diren handienak izatea, baita lanpostuak eustea ere. Alderdi horretatik abantaila da lanpostuak ez direla kolokan jartzen, egoera ekonomiko-teknologikoa oso larria ez bada behintzat, bai ordea kideek erdietsiko dituzten sarrerak. Izan ere, sarrera horiek merkatuko gora beheraren arabera mugituko lirateke.

Kooperatibaren kudeatzaileek langile kontratatuak hartzeko tentazioa izango dute; horrela, lan kostu finkoak izango ditu eta kooperatibak sarrera gehigarriak eskuratu ahal izango ditu kontratatupeko langileengatik, nahiz langile horiek ez dituzten disfrutatuko, bai ordea enpresa kooperatibako kideek. Alta, honelako jokaera kooperatibismoaren balore eta printzipioen aurka egongo litzateke eta enpresa berean, gutxienez, bi motatako langileak egongo lirateke: langile bazkideak eta langile kontratatupekoak, bikoiztasun arriskutsua izan daitekeena.

Azpiarratu behar da kooperatiba batean kide berrien sarrera eta irteera bermatuta daudela, horrela jasotzen baitituzte printzipioek. Hala ere, kideen sarrera eta irteera baldintzatuta daude. Kide berri batek ekonomia eskalak sortzen ditu, kapital aldakorra gehitzen delako, baina irteeran kapital aldakor hori murriztu egingo da, neurriak ez badira hartzen irteera baldintzatzeko (MARCUELLO eta al 2010). Eta baldintza horien ezean, enpresaren jardura murriztuko luke eta hortik legedia malgua izatea bazkideen finantza ekarpenak eskuratzeko orduan.

#### 4. Kooperatiben integrazioa eta elkartzea

Atal honetan kooperatiben arteko lotura diferenteak aurreikusten dira. Elkartze arruntena bigarren mailako kooperatibak eratzea da non bi kooperatiba baino gehiagok enpresa loturak sortzen baitituzte. Maila honetako kooperatiben helburua jardura ekonomikoa osatzea, sustatzea, koordinatzea, indartzea eta integratzea da, eta horretarako egitura komunak sortuko

dituzte goragoko mailako kooperatiban. Oinarrizko kooperatibek eskumenak galduko dituzte, baina ekonomia eskalak izatera heldu daitezke, eskumen uzteak egokiak egiten baldin badira.

Goragoko mailako kooperatibari zenbait eskumen transferituko zaizkio, hala nola industria jarduera bat eta hori dela eta oinarriak ipiniko dira talde zuzendaritza bat izateko. Elkartutako norbanako kooperatibek zereginak ez dute izango taldeko erabakietan eta inoiz iradokizunak egiten bazaizkio, goiko mailako kooperatibaren zuzendaritzarentzat ez dira lotesleak izango. Horregatik, eskumen oro zehaztasun handiz ipini behar dira, arazoak ez daitezen sortu organo komun eta norbanakoen artean.

Kooperatibez gain, beste edozein erakunde edo pertsona juridikok ere osa dezake bigarren edo goragoko mailako kooperatiba. Baina erakunde gehigarri hauek inoiz ezin dezakete gainditu maila berriko botu kopurua erdia.

Bestalde, edozein kooperatibak eskubidea izango du goragoko mailako kooperatiban sartzeko eta kide izateko. Kidetza hori Artekaritzak onetsiko du, baina estatutuek horrela badiote, Batzar Nagusia ere izan daiteke eskumen hori duena. Proba denboraldia ipini daiteke kide gairentzat.

Maila goragoko kooperatibaren kapital sozialari egingo zaizkion ekarpenak hitzartutako jarduera kooperatiboaren arabera kalkulatu dira eta ekarpen horien oinarria kooperatiba bakoitzaren bazkide kopurua izan daiteke edo estatutuek jasotzen duten beste irizpideren bat ere. Halaber, emaitza positibo edo negatiboen banaketa hitzartutako jarduera kooperatiboaren arabera burutuko dira, baina beti ere aurretik erreserbarako eta hezkuntzarako funtsak esleitura.

Bestalde, kooperatiba mota hauen aginte organoak Batzar Nagusia eta Artekaritza izango dira. Eta Artekaritzaren boto eskubidea kooperatiba bakoitzaren jarduera kooperatiboaren arabera finkatuko da edo kontseilari bakoitzak ordezkatzen dituen bazkideen arabera. Azkenik, estatutuek baimendu dezakete Artekaritzaren herena taldeko kooperatibetan bazkide ez diren pertsonak osatu ahal izatea, beti ere kooperatibagintzan ezagutza eta gaitasuna frogatuta baldin badute pertsona horiek.

Edozein eratako kooperatibek beraien arteko sozietateak, elkarteak, taldeak, partzuergoak eta bategiteak osa ditzakete, baita beste pertsona juridiko edo fisikoekin, nahiz pribatu edo publiko izan. Bestalde, kooperatibek parte hartzeak izan ditzakete aipatu edozein erakundetan.

Halaber, kooperatibek korporazioak osa ditzakete. Korporazioak kooperatiben taldekatzea adierazi nahi du eta talde horretako partaideak lehen maila edo urrunagoko kooperatibak izan daitezke zeinen helburua enpresa politikak diseinatzea, bere kontrola eta bere kideen plangintza estrategikoa eratzea baita, gainera jarduera eta baliabide komunak kudeatzea ere bai.

Korporazioak Kontrol Kontseilua izango du eta bere eginkizunen artean zuzendaritzak onesten duen kudeaketa fiskalizatuko du eta bere eskumenen artean kide berriak eta bajak onestea izango da, baita disziplina errejimena aplikatzea ere. Halaber, Kontseilu horri dagokio estatutuek jasotzen dituzten ekintza administratiboak aurrera eramatea. Nolabait esateko, Artekartzaren antzeko organo bat da.

Azkenik, talde kooperatiboak daude. Talde hauek kooperatiba multzo batek osatzen dute eta talde buru bezala antolatzen da eta elkarte, sozietate mugatu, sozietate anonimo eta abar izan daitezke. Talde buruak ematen dituen aginduak derrigorrez betetzekoak dira taldeko kooperatiba ororentzat. Erabaki bateratuak hartzen dira. Gainera, halabearrez, taldeak kooperatiben printzipioen arabera funtzionatuko du.

Kooperatiba taldeko derrigorrezko aginduak kudeaketa, administrazio eta gobernuari buruzkoak izan daitezke. Beraz, estatutu eta erregalamentuak jaso behar dituzte arlo komuneko eskumenak, gainera, noiz behinkako ekarpen finantzarioak ere arautegi horietan finkatuko dira, zein enpresaren bilakaera edo emaitzen arabera izango baitira.

Bestalde, kooperatiben interesak defendatzeko eta sustatzeko baturak, federazioak eta konfederazioak sor ditzakete, baita Kooperatiben Goren Kontseilua ere. Botere Publikoen eginkizuna izan behar du interkooperazioeko harremanak bultzatzea. Jarduera ekonomikoko sektore bereko kooperatiba bik edo gehiagok batasun bat era dezakete eta euskal legediaren arabera mota bateko kooperatiben kopurua errejistratutako ororen ehuneko 40ra heltzen bada edo errejistratutako bazkideen kopurua portzentajea horretara iristen bada, federazioa eratu daiteke. Eta azkenik, federazio guztien ehuneko 70 elkartzen badira, ofizialki, Konfederazioa osatuko dute.

Interkooperazioaren eredu Arrasateko Talde Kooperatiboa da eta berau gobernatzeko zenbait organo sortu ditu (BAKAIKOA eta al, 1999), hala nola Kongresu Kooperatiboa non taldeko kooperatiba oro ordezkatu baitaude. Kongresu horren pean Batzorde Iraunkorra dago kongresuen arteko estrategia eta helburu korporazioak onartzeko, baita erabaki esanguratsuak hartzeko ere. Maila operatiboagoan Kontseilu Nagusia dauka aipatu estrategiak eta helburuak indarrean jartzeko eskumenarekin.

Aipatu organoek gain, interkooperaziorako zenbait lanabes ere badauzka Arrasateko Taldeak. Lanabes horien artean, Interkooperaziorako Funts Zentrala, Interkooperaziorako Hezkuntza eta Sustapenerako Funtsa, Emaitzen Birmoldaketa eta Enplegu Laguntzarako Funtsa (BAKAIKOA, B. 1996). Funts hauei esker, Arrasateko Kooperatibei erosoago izan zaie egoera larrietan bizirautea, azken finean, lanabes egokiak izan dira politika antiziklikoa burutzeko eta ezin uka emaitza oparok erdietsi ez dituztenik.



## 5. Interkooperazioa eta gazteak

Atal honek zenbait ideia eta hausnarketa jasoko ditu gazteen etorkizunari buruz, ikusita zer nolako langabezi tasa pairatzen ari diren Eurapako Batasunean, batik bat Espainiako estatuan eta Hego Euskal Herrian, non hurrenez hurren, ehuneko 60 eta 40 ingurukoa baita.

Egoera larri horren aurrean gure unibertsitate ikasleei lan irteerak egon badaudela demostratu nahi da interkooperazio printzipioaren bidez, zein, azken finean, GEko printzipio garrantzitsu bat baita, batik bat enpresa kooperatiboentzat. Interkooperazio erabilgarri da pertsonen arteko jardueran eta printzipio honen bidez, kasu horretan pertsona gazteen arteko jarduerak sustatze aldera. Enpresa horiek aukera handiagoak izango dituzte jarduera ekonomikoan txertatzeko, baita enpresa sendoagoak, errentagarriagoak eta lehiakorragoak izateko ere. Gainera, jendarte kapitala aberastuko dute lankidetzaren bidez, bakarka arituta baino askoz ere aberatsagoa baita elkar lanean aritzea.

Gaur egungo egoera ekonomikoa ondorio larriak uzten ari da jendarteko sektore gehienetan eta ehun ekonomikoan, baina gazteen artean nabarmenagoak dira, bizitza proiekturik gauzatzeko aukerarik gabe geratzen ari baitira. Erakundeek eskaintzen dizkiguten datuak gazteen egoerari buruz hotzikararak sortzeko modukoak dira. Davoseko Mundu Foru Ekonomikoa bera ere kezkatuta azaldu da gazteen egoera tratatu dutenean, nahiz han bildutakoak egoera horren arduradunetakoak ere badiren; horien ustetan, gazteen egoera horrek ez badu konponbiderik, hemendik 12-18 hilabeteren buruan matxinaden arriskuak egon omen daitezke. Egoera larria, beraz. Hala ere, oraindik hitz ederrak besterik ez dira eta neurriak ez dira inondik ere ikusten.

Aho batez esaten digute gure agintari politiko eta ekonomikoek gure gazteria historian izan dugun preparatuena dela. Bestalde, azpimarratu behar da esaldi horren esanahia ez dela harritzekoa, normala baizik. Izan ere, zientziak aurrera egin ahala eta beraz teknologiak, ondorioz ezagutza ere handitu egiten da. Haatik gaurko belaunaldiak aurrekoak gainditu egiten dituzte prestakuntzari dagokionez eta hurrengoak gaurkoa hobetuko duen bezala. Hori da historiaren bilakaera.

Orain dela lauzpabost hamarkada, ugazabak edo horien ordezkariak gazteen bila joaten ziren lana eskaintzera, lanpostu duina gainera. Modu horretan gazteek nahiko erraz uzten zuten gurasoen etxebizitza eta bizitza proiektu duin bat eratzeko ahalmena zeukaten. Itxurazko soldata erdiesten zuten eta sarritan etxebizitza egoki bat eskuratzeko gaitasuna zeukaten gehiegi hipotekatu gabe. Laburbilduta, gazteen etorkizuna nahiko argia zen bizitza proiektua bideragarria izate aldera.

Bien bitartean, duela hamarkada bat hasita, gazteek zailtasun handiak dituzte enplegua erdiesteko, batik bat lanpostua egonkorra edo duin sa-

marra nahi baldin badute. Begi bistakoa da enpleguaren behin behinekotasuna areagotu egin dela gazteentzat eta egoera horrek asko oztopatzen du bizitza proiektu bat ahalbidetzen, kontutan hartuta gaur egungo premiak. Lanpostuen behin behinekotasuna nabarmena izan arren, horrek ez du esan nahi erraz aurki daitezkeenik.

Artikulu honetan gazteentzako lanpostuen behin behinekotasunaz, seguritate ezaz eta lanpostu egonkor ezaz ari gara, baina behin behinekotasun hori adineko langileek ere pairatzen hasiak dira, baita mugagabeko kontratuak zituzten beharginak ere, lan merkatuak malgutu behar direla eta, mugagabekoak ziren asko eta asko behin behineko bihurtzen ari baitira. Gaur egungo datu estatistikoek diotenez ehuneko 90 kontratu berri muga finko batekoak dira, duela zenbait hamarkadatan gertatzen ez zen bezala.

Gustavo LEJARRIAGAK (2013) eginiko azterketa batek gazteriak pairatzen duen langabezi datu batzuk ematen ditu. Datu horiek 2012ko Encuesta de la Población Activatik (EPA) atera ditu. Urte horretan 5.760.000 langabe zeuden eta horietatik ehuneko 43,23k 35 urte baino gutxiago zituen, hau da, gazteak ziren, 16 urtetik 34ra bitartekoek gazteen populazio aktiboa osatzen baitute. Datu horiek kontutan hartuta ondorengo taula osatu da:

### 1. taula

Gazteriaren langabezia adinaren arabera (%)

Adina	Ehunekoa
16-19	72,65%
20-24	49,13%
25-29	32,19%
30-34	25,29%

*Iturria:* G. LEJARRIAGA, Revesco, 2013ko zenbaki berezia.

Estatu mailako gazteriaren langabezi tasa berorren populazio aktiboaren ehuneko 60 ingurukoa da eta Euskal Autonomia Erkidegorako tasa hori ehuneko 40tik hurbil dago. Zalantzarik gabe zifra horiek oso kezka-garriak dira eta argi gorri guztiak piztuta daude, ez bakarrik gure herrialdean, atzeritik ere kritikak baitatozkigu. Jakin, badakigu, Europar Batasuneko zenbait agintarik beraien kezkak azaldu dituztela arazo honi buruz eta espainiar gobernuari neurriak hartzeko eskatu diotela. Bidenabar, Europar Batasunak aurrekontu partida bat esleitu du jendarte drama horri aurre egiteko, bai Espainiako estatuan, baita beste zenbait europar estatutan ere. Obama presidentek ere bere kezka azaldu zion Raxoiri Etxe Zurian hartu zuenean, gazteriaren langabezi tasa garaiegia dela eta.

Hori da gaur egungo egoera larria, baina etorkizun hurbilekoa ere ez da batere itxaropentsua, lanpostu berriak sortzeko ahalmena ez baita ageri gure arteko ekonomian eta nekez etorriko da Europatik ezer onik arlo honetan. Oraingo eredu ekonomikoak aurreikusten du ekonomiak hazi egin behar duela lanpostu berriak sortzeko. Izan ere, BPGak ehuneko 2-2,5 hazi behar du okupazio tasak ehuneko bat gora egiteko. Erlazio horri Okunen Legea deritzo zeinek BPGren hazkundera langabezi tasaren beherakadarekin lotzen baitu.

Gazteriaren arteko langabezi tasa garai honen aurrean, jendarte enprendimendu aukera ezin hobea litzateke pertsona hauek lan merkatuan integratzeko. Horrela, talde enprendimenduak lan elkartutako enpresak eratzea eramango lituzke, batik bat kooperatibak eta lan elkarteak. Zalan-tzarik gabe aukera oso ona izango litzateke, bakarra ez esate arren, mota horretako enpresak sortzea, lan merkatu korapilatsu eta bihotz gabean integratzeko.

Talde enprendimenduko formulak gazteentzat abantailak dauzkaten erakundeak dira, nahiko erraz lotzen baitira gazteen espirituarekin. Horrela, gazteek beraien helburuak finka ditzakete beraien kezka eta trebetasunekin bat eginda. Gainera, erabaki hartzetan partaide (NÁCHER, 2002) izango lirateke eta proiektuko protagonista. Modu horretan gehiago baten nahiak aseko lirateke, hasiera batean ez baitzaie gustatzen inoren menpe egotea, are gutxiago ohiko enpresa bateko errejimen autoritario batean.

Garbi ikusten da enpresa parte-hartzailea denean bertako protagonistak gehiago murgiltzen direla enpresa proiektuan, ezaugarri kapitalista duten enpresetan baino. Horrela, enpresaren ekoizkortasuna, lehiakortasuna, lan kalitatea eta errentagarritasuna abantailatsuagoak izaten dira. Bide batez, lana eta enpresaren arteko lotura indartu egiten da, ez-egonkortasuna ahulduz eta motibazioa inkrementatuz.

Bestalde, azpimarratu behar da enprendimendua indibiduala edo taldekoa izan daitekeela. Enprendimendu indibidualak autonomia pertsonala bilatzen du, hirugarren pertsonetikiko menpekotasuna saihesteko, nahiz horrela enpresaren tamaina auzitan jarri. Bien bitartean, talde enprendimenduak maila bat igotzen du interkooperazioa, lankidetzeta, eta horrek enpresaren errendimendua handiagoa izatea ahalbideratzen du.

Jendarte eta ekonomia krisialdian proiektu berri andana sortzen dira eta proiektu horietan egon daitezke giltzarriak enpresa parte-hartzaileak edo Gizarte Ekonomiakoak eratze aldera. Eta enpresa hauek, askotan esan den bezala, krisiaren aurkako lanabes anti-zikliko gisa arituko lirateke. Horregatik, botere publikoei eskatu behar litzaieke horrelako proiektuak babestu eta lagundu egin behar lituzketela jarduera hasten dutenean, abiatzeko gastu ugari egin behar dituztelako; laguntza horiek zerga edo finantziario kostu arinagoen bidez gauzatu beharko lirateke. Modu horretan beteko litzateke ere

1978ko Konstituzioaren 129.2. artikulua dioena, alegia, botere publikoek, besteak beste, kooperatibismoa sustatu beharko luketela.

Bidenabar aipatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan badagoela kooperatibak garatzeko agentzia, Elkar-Lan deritzana. Agentzia horren helburua enpresa kooperatiboak sortzen laguntzea da, batik bat lan elkartuko kooperatibak. Aitortu behar da Elkar-Lanen ekarpenak oso itxaropentsuak direla. Izan ere, Uzkurraldi Handi honen garaian agentzia hori gai izan da urtero 120 bat kooperatiba abian jartzeko eta 500 bat lanpostu berri sortzeko. Bataz beste, kooperatiba bakoitzak 5 langile barneratzen ditu eta azken finean bost pertsona elkarren artean lankidetzan jartzen ditu enpresa proiektuari bizitza emanez.

Gizarte Ekonomiako enpresa proiektuetan parte hartzen duten pertsonen demokrazia, gardentasuna, zuzentasuna, zuhurtasuna, elkartasuna, lankidetzeta, eta abar bezalako baloreak eta printzipioak barneratuta izaten dituzte. Balore eta printzipio horiek betetzen badira, enpresa berriari sendotasuna, irmotasuna, jarraimena eta kaudimena emango dizkiote. Halaber, ekoizkortasuna hobetzeko, bazkideen arteko lankidetzeta oinarritzakoa izango da. Ezin daiteke pentsa lan bazkideen arteko lehiak enpresa proiektuaren alde egingo duenik; ziurrenik, errazago izango da hondamendira eramatea.

Guztiau dela eta, arras garrantzi handia dauka unibertsitate ikasleen artean 4-5 kideetako taldek osatzea; zentzuzkoa eta aproposa litzateke; talde hauen osaketetan disziplina ezberdinetako ikasleak egotea komeni litzateke, hain zuzen, gerora enpresaren objektu sozialarekin bat etorriko direnak. Horrela, ikasketak amaitzerakoan bidea izango dute laguntza publikoak jasotzeko eta Elkar-Lan edo Tokiko Garapen Agentzien aholkularitza erdiesateko; baldintza horietan enpresa sendo bat eratzeko aukera asko leudeke.

Madrilgo Universidad Complutensek egin duen azterketa batek azaltzen digu bere ikasleriaren gehiengo batek, ehuneko 71k, bere kontura, autonomia izan nahi duela, modu horretara inolako menpekotasun ez baitu izango eta bere jarduera askatasun osoz burutuko du. Lan berak jasotzen du ez dutela kooperatiba edo lan elkartea sortzen pertsona juridiko horiek zailtasun ugari dituztelako enpresa proiektu bat indarrean jarri aurretik. Horrela laburbilduko genituzke zailtasun horiek:

1. Langileak kontratatzeko mugak dituzte.
2. Hirugarrenekin eragiketarako egiteko mugak dituzte, gainera behar-tuak daude Derrigorrezko Erreserba Funtsek eratzeko.
3. Lankidetzeta eta finantziarioa ez dira sustatzen eta pertsona juridiko horien ezagutza oso eskasa da.

Lehen aipatu bezala, *ikasleen elkarreak* eratzeko enpresa proiektuak diseinatzen joateko arras lagungarriak izan daitezke hurrengo jautzia emateko,

hau da, kooperatibak edo lan elkarteak sortzeko. Esan beharra dago demostratuta dagoela gutxitutako edo marjinazioan erortzeko pertsonak osatutako elkarteak edo *advocacy*-ak, hein handi batean, erabakigarriak direla enplegurako zentro bereziak (BAREA, 2008) eta jendartzerako enpresak sustatzeko. Horregatik, elkarte hauek unibertsitate ikasleen defentsan eta etorkizunez arituko lirateke, eta bide batez enpresa parte-hartzaileak bultzatzen non lankidetzeta oinarrizko osagaia izango bailitzateke.

Bestalde, mota horretako elkarte hauek beste betebeharrak izango lukete unibertsitate barruan: Gizarte Ekonomiako gaiak ikasketa planetan sartzea, plan horietan sozietate kapitalistek bakarrik baitute lekua. Horregatik ez da harrizkoa inkestetan jasotako erantzunetan ikasleen ehuneko 51k aitortzea ez dituztela Gizarte Ekonomiako gaiak ezagutzen eta ehuneko 71k uste dute materia horiek ikasketa planetan egon behar luketela.

Badaude, egon ere, beste pisuzko arrazoi batzuk Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko. Lehenik, mota horretako enpresak oso egokiak dira tokiko ekonomia pizteko; gainera, enpresa mota horietakoak ez dira desleku-tzen, ezartzen diren tokian sustraitzen baitira. Bigarrenik, enpresa horiek jendarte kohesioa sakontzen dute; bien bitartean, enpresa kapitalistek jendarteko alde ekonomikoak handitu besterik ez dituzte egiten, non eliteko agintariek, teknostrukturakoek, sarrera arras garaiak eskuratzen dituzten eta langile xumeek oso alokairu apalak; gainera, enpresa hauek ez dira inon sustraitzen. Hirugarrenik, errentaren birbanaketa berdinagoa da Gizarte Ekonomiako enpresetan. Laugarrenik, migrazio mugimenduak egonkortu egiten dira nekazari eremuetatik hirietarako zein hirietatik atzerrira. Azkenik, aldaketa demografikoak positibo bilakatzen dira, mota hauetako enpresen inguruan negozio txiki ugari jaiotzen direlako eta belaunaldi erreleboa ere askoz errazagoa izatera heltzen da, bakarkako familia negozioa gainditu egiten baita.

## 6. Euskal unibertsitari egresatuen aukerak

Egoera larri horren aurrean gure unibertsitate ikasleei lan irteerak egon badaudela demostratu nahi da interkooperazio printzipioaren bidez, zein, azken finean, GEko printzipio garrantzitsu bat baita, batik bat enpresa kooperatiboentzat. Interkooperazio erabilgarri da pertsonen arteko jardueran eta printzipio honen bidez, kasu horretan pertsona gazteen lan merkatu-ratzean. Horiek aukera hobetoak izango dituzte jarduera ekonomikoan txertatzeko enpresak sortuta, sendoagoak eta lehiakorragoak izango baitira enpresa horiek. Gainera, jendarte kapitala aberastuko dute lankidetzaren bidez, bakarka arituta baino askoz ere aberatsagoa eta eragingarriagoa baita elkar lanean aritzea.

EHUk badaramatza zenbait urte bere egresatuen jarraimena egiten. Izan ere, 2008. urtean ikasketak amaituta irten zirenen arteko enplegu tasa ehuneko 76,7koa zen, langabezi tasa ehuneko 16,8 zen bitartean. Horrek esan nahi du jarduera tasa ehuneko 93,5ekoa zela eta ehuneko 6,5ek ez zietela erantzun inkestako galderari. Bien bitertean, urte horretako gazteriaren langabezi tasa ehuneko 30ekoa zen, egresatuen artekoa baino ia bi aldiz handiagoa.

Egresatu hauek enplegua aurkitzeko batz besteko denbora 7 hilabete-koa da, nahiz denbora hori ikasketa moten arabera izan. Horrela, jendarte zientzietako egresatuek 9,47 hilabete behar izan zituzten, ikasketa juridiko-ekonomikoetatik zetozenak 7,76 hilabete eta giza zientzietakoek 11,5 hilabete. Enpreetan praktikak egindako egresatuek errazago aurkitu zuten lanpostua, enplegatutako guztien artean praktika horiek ehuneko 88k eginak baitzituzten.

Esanenez, lanpostua 7 hilabeteren buruan aurkitzen dute. Hala ere, enplegatutako ehuneko 22k bazeukaten beren lanpostua unibertsitate ikasketak amaitu aurretik, ehuneko 33,6 lanean ari zen 3 hilabete baino lehenago eta guztien arteko ehuneko 72,5ek lan merkatuan eskarmenturen bat izan zuten 12 hilabeterako. Autoenplegua ehuneko 5,2 zen egresatuen artean: horien artean ehuneko 52 arkitektoak, ehuneko 20 zuzenbideko lizentziatuak...

Halaber, EHUk badauka enpresak sortzeko zerbitzu bat nondik negozio enprendimenduak irtengo baitira. Balio absolutuetan, 1998tik 2008ra 3.547 tituludunek negozio berri bati ekin zioten. 2006-2010eko denboraldian 110 enpresa berri erregistratu ziren zeinek 550 enplegu sortu baitzituzten 48 milioi euroko inbertsioa egin ostean. Azpimarratu behar da enpresa ekimen horien inguruan 3.000 ikasle ibili zirela denboraldi horretan.

Hala ere, tamalez, ez dakigu 110 enpresa berri horiek zein pertsona juridiko hartu zuten. Gizarte Ekonomiako ezagutza xume batzuk izan baitzituzten, ziurrenik, bat baino gehiagok mota horretako enpresak eratuko zituzten. Kontutan izan behar da gazteriak Gizarte Ekonomiaren balore eta printzipio aunitz bereganatzen dituela, hala nola demokrazia, elkartasuna, zuzentasuna eta zuhertasuna. Gazteen arteko lankidetzak bide ugari irekiko lizkieke hauek sortutako enpresak sendoak izateko, batik bat kooperatibak eta lan elkarteak zeinetan lankidetzaren printzipioa oin-oinarrizkoa baita.

## 7. Ondorioak

Lan honetatik atera daitekeen ondorio nagusia da lankidetzaren oinarritzko printzipioa dela edozein enpresa alternatibo eratzeko. Gainera, printzi-

pio eta balore kooperatiboak jendarte kapitala osatzen duten elementuak dira eta kapital mota hori aberastu besterik ez dute egiten. Jendarte kapital deritzan hori ekoizpen faktoreen osagai intangiblea da eta beronek esplikatuko du enpresa, eskualde edo herrialde baten garapen ekonomiko eta soziala. Izan ere, ekonomiaren orokortzea dela eta, faktore fisikoak nahiko antzekoak dira edozein herrialdetan, baina berdin ez genezake esan pertsonen formakuntza mailaz. Horregatik, herrialde batzuk garatzen dira eta beste batzuk, itxuraz berdintsuak izan arren, atzean geratzen dira, garapen makalagoa izaten baitute. Joera hau aplikagarria da norbanako enpresentzat ere.

Europako herrialde gehienek, baita Euskal Herriak ere, gaur egun daukaten arazo larrienetakoa, larriena ez esate arren, gazterien langabezi tasa garaia da. Izan ere, Espainiako estatuko ehuneko 60ra heltzen da eta Euskal Herriko ez dabil urruti ehuneko 40tik. Egoera honen aurrean kontutan hartzen baldin badugu enpresa multinazionalak lanpostuak suntsitzen ari direla produktibitatea handitzeko eta bide batez mozkin tasak areagotzeko, itxaropenik ez dugu eduki behar enplegu garbia sortuko dutenik enpresa mota hauek. Beraz, enplegua sortu enpresa txiki eta ertainek sortuko dute, baita mikroenpresak ere eta hemen kokatuko ditugu GEko enpresak.

Haatik, etorkizuneko enplegua aipatu enpresa mota horien esku egongo da, zeinek finantza baliabide urriak beharko baitituzte. Norbanako enpresa proiektutik kolektibo batera jauzia emateko Gizarte Ekonomiak aukera oparoak eskaintzen ditu, batik bat interkooperazio printzipioa barneratzen bada enpresa sortzaileen artean.

Enpresa proiektuak laguntzeko Euskal Herriko Unibertsitateak Enplegu Zerbitzu bat eratuta dauka ikasle ugariren eskakizunak eta beharriak bideratzeko. Horrela, 2006tik 2010era 110 enpresa sortu dira eta 550 lanpostu berri. Enpresa multzo horretatik ez da ezagutzen zein formula juridikoa erabili diren, baina enpresa egokienak parte-hartzaileak lirarteke eta hauen artean kooperatibak, lan elkarrekin eta Gizarte Ekonomiako beste edozein pertsona juridiko non balore eta printzipio kooperatiboak gauzatuzen baitira.

## 8. Bibliografia

- BAREA, J. (2008), *Economía Social e inserción laboral de las personas con discapacidad en el País Vasco*, Fundación BBVA, Bilbao.
- BAKAIKOA, B. *et al.* (2012), «El Cooperativismo vasco y políticas públicas», *Ekonomiaz*, n.º 79.
- BAKAIKOA, B. *et al.* (1999), Mondragón Corporación Cooperativa —MCC—, *Grupos Empresariales de la Economía Social en España*, CIRIEC-Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Valencia-Madrid.

- BAKAIKOA, B. (1996), «La solidaridad intercooperativa y la política de empleo en MCC», *CIRIEC-ESPAÑA, Revista de Economía Pública Social y Cooperativa*, n.º 22.
- CIRIEC-ESPAÑA (1995), «Los principios cooperativos del siglo XXI», *CIRIEC-ESPAÑA, Revista de Economía Pública Social y Cooperativa*, n.º 19.
- COLEMAN, J. *Foundation of Social Theory*, Cambridge: Harvard University Press, 1990.
- COLEMAN, J. «Social capital in the creation of human capital, *American Journal of Sociology*», 94, 1988, p. 95-120.
- AA.VV. (2014), *Herria 2000 Eliza*, 248. zbk. monografiko berezia euskal kooperatibismoaren krisiari buruzkoa. Zenbait euskal pentsalari, enpresari eta kritikoren ideiak jasotzen dira (Koldo SARATXAGA, Unai DEL BURGO, José M.ª LARRAÑAGA, Félix PLACER, eta abar).
- LEJARRIAGA, G. *et al.* (2013), «El emprendimiento colectivo como salida laboral de los jóvenes», *REVESCO*, número especial.
- MARCUELLO, C. *et al.* (2010), «La sociedad cooperativa: motivación y coordinación. Un análisis desde la teoría económica de la empresa y la Economía Social», *REVESCO*, n.º 110.
- MARCUELLO, C. *et al.* (2008), «Principios cooperativos facilitadores de la innovación: un modelo teórico», *REVESCO*, n.º 94.
- MERINO, S. (dir. y coord.) (2008), *Manual de Derecho de Sociedades Cooperativas*, GEZKI y Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Donostia y Vitoria.
- NÁCHER, J. (2002), «Organización redes relacionales, democracia, participación, empresas y mercado», *CIRIEC-ESPAÑA, Revista de Economía Pública Social y Cooperativa*, n.º 40.
- NAGORE, I. (2008), «Cooperativas de segundo o ulterior grado», in, *Manual de Derecho de Sociedades Cooperativas*, GEZKI y Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Donostia y Vitoria.
- PAZ CANALEJO (1995), «Principios cooperativos y prácticas societarias de la cooperación», *REVESCO*, n.º 61.